


# Ura: eskubidea, gizarte desorekatu honetan

Giza Garapenari buruzko 2006ko Txostena, gazteek laburtuta  
Eskasia baino gehiago: Boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia



## Mundu osoko gazteen eskutik



# Edukiak

4

## Hitzaurreak

Gaur lan egin, biharkoa salbatzeko

6

## 2015eko muga

Zortzi erronka, mundua aldatzeko

8

## Giza garapena

Gure ahalmena lortzeko askatasuna

10

## Ura: giza eskubidea

Bakea lortzeko aurrebaldintza

12

## Krisi isila

Milioika pertsona ari dira hiltzen

16

## Desorekari aurre egitea

Erraz, dena dutenentzat; nekez, ezer ez dutenentzat

18

## Genero kontua

Zama emakume eta neskatilen gainean

20

## Ekitearen onurak

Izugarrizko aurrerapenak lor daitezke

22

## Ezer ez egitearen ondorioak

Pertsonak hiltzen dira axolagabekeriaren ondorioz

24

## Mugaz gaindiko urak

Nazioarteko lankidetzaz funtsezkoa da

26

## Klima-aldaketa

Pixkanaka eta saihestezin ari da gertatzen

28

## Gazteak ekinean

Gure grinak hauspotzen du gure borondatea

30

## Etorkizunari begira

Eragin aldaketa!

# Kredituak

## EDITOREA

Claire Hastings (Kanada)

## DISEINATZAILEA

Daniel López (Ekuador)

## PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA

Benjamin Mains (Ameriketako Estatu Batuak)

## ARGITALPEN-TALDEA:

Andrea Davidson (Kanada)

Anika Singh (India)

Patricia Sudi (Kenya)

Connor Youngerman (Kanada)

Preetam Alex (India)

Alpha Bacar Barry (Ginea)

Nina Best (Brasil)

Olivier Cournoyer Boutin (Kanada)

Shahrez Khan (Pakistan)

Tanya Mowbray (Erresuma Batua)

Julien Paquin (Frantzia)

Alfredo Redondo (Argentina)

Matthias Schmidt (Alemania)

## KOLABORATZAILEAK:

Bart Abbott (Ameriketako Estatu Batuak)

Vu Thuy Anh (Vietnam)

Francis Anyaegbu (Nigeria)

Joshua Awala, (Kenya)

Edward Blackie (Liberia)

Michael Boampong (Ghana)

Olya Chebykina (Errusia)

Samson Gounue (Liberia)

Saida Ibragic (Bosnia-Herzegovina)

John Koroma (Sierra Leona)

Samadhee Malalasekera (Sri Lanka)

Darpan Mandal (India)

Gaby Mavilla (Peru)

Themba Phakathi (Swazilandia)

Raffia Saleem (Pakistan)

Charles Sendegeya (Uganda)

Norman Wai (Papua Ginea Berria)

Karmel Wong (Kanada)

Yu Xiang (Txina)

Xiong RuoFan (Txina)

## PROIEKTUAREN AHOLKULARIA

David Woollcombe

## UNDPko LANKIDEAK

Marisol Sanjinés

Pedro Manuel Moreno

## TALKING-BOXeko LANKIDEAK

Fabián Vázquez Savareikas

Gonzalo Sánchez David

Argitalpen-taldeak eskerrak eman nahi dizkie Rosey Simonds, Bart Ullstein, Helen de Martos, Joan Wilson, Timothy Hastings eta Steve Riffkin-i, beren eskuzabaltasunagatik eta proiektuari emandako babesagatik.

© 2007 Peace Child International  
The White House | 46 High Street |  
Buntingford, Herts | SG9 9AH, Erresuma Batua  
Tel. (+44) 1763 274459 | Fax. (+44) 1763  
274460  
[www.peacechild.org](http://www.peacechild.org) | [water@peacechild.org](mailto:water@peacechild.org)

Nazio Batuen Garapen  
Programa  
1 UN Plaza | New York | New York, 10017 |  
Ameriketako Estatu Batuak  
<http://hdr.undp.org>

Euskal bertsiorearen itzulpena: BAKUN S.L.

Edizio hau klorotik eratorritako produkturik gabe zurituri %100 paper birziklatuan inprimatuta dago. Argitalpen honen paperaren kontsumoa, bai eta banaketak sorturiko berotegi-efektuko gasak ere, konpentsatu egingo dira. Horrenbestez, argitalpen hau "karbono-neutrala" da eta klima-aldaketaren prebentzioan parte hartzen du.



Liburuxka honen edukiak, osorik zein zati bat, ezer ordaindu gabe eta edozein euskarritan erreproduzitu daitezke, eta ez dago horretarako baimen berezirik eskatu beharrik, baldin eta Peace Child International, UNDP, egilea eta, argazkirik izanez gero, dagokion argazkilaria iturritzat aipatzen badira eta horren berri editoreei idatziz ematen bazaie.

Ezin da argitalpen hau salmentarako edo beste edozein merkataritza-helburutarako erabili, baldin eta aurretik UNDPren eta Peace Child International-en idatzizko baimena lortzen ez bada. Liburuaren irudi guztiak artistek jakinda eta horretarako baimena emanda erreproduzitu dira. Ekoizleak, argitaletxeak eta inprentak ez dute bere gain hartzen inolako erantzukizunik, argitalpen hau dela-eta sor daitezkeen jabetza artistikoko eskubideen urraketagatik, edo bestelako eskubideen urraketagatik. Ahalegin guztiak egin dira bermatzeko kredituak bat datozela adierazitako informazioarekin.

Liburuan adierazitakoak egileen iritzia dira eta ez dute zertan izan inprentaren, UNDPren, Peace Child International-en edo haien ordezkarien iritzia.

2008an argitaratua, Euskal Autonomia Erkidegoan. Edizio hau URA Uraren Euskal Agentziari eta UNESCO Etxeari esker egin ahal izan da.



centro unesco euskal herria  
centre unesco pays basque  
unesco centre basque country



ur agentzia  
agencia vasca del agua

[www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)

[www.uragentzia.net](http://www.uragentzia.net)

*«Gaur egungo munduan, ura bizi-iturri baino zerbait gehiago da. Ura eskuratu ezin izateak pobrezia, desoreka eta gizarte-injustizia eragiten ditu, bai eta alde handiak ere bizitza-aukeretan. Ur-eskasia garrantzitsua da, ura giza eskubidea delako, eta inork ez luke ez ikusiarena egin behar giza eskubideak urratzen direnean. Halaber, ez genuke onartu behar munduan milioi bat haur hiltzea, baso bat ur ez dutelako edo komunik ez dutelako; izan ere, funts-funtsean, arrazoi doilor horiek daude hainbat eta hainbat haur-heriotzaren atzean.»*

**Kevin Watkins**

Zuzendaria, Giza Garapenari buruzko Txostenerako Bulegoa

# UNDPren hitzaurrea

## Zimenduak eraikitzen hasi

Ura funtsezko elementua da bizirako, eta giza garapenerako oinarri nagusietako bat. Baina, ikusiko duzueenez, gizateriaren zati handi batentzat ez dira oinarri horiek oraindik existitzen.

Batzuek uste dute ez dagoela mundu guztiarentzat nahikoa ur, eta horixe dela, besterik gabe, uraren gaur egungo krisiaren arrazoa. Nazio Batuen Garapen Programak (UNDP) baztertu egiten du ikuspegi hori, eta krisiaren jatorria pobrezia eta desberdintasuna dela dio. Mila milioi lagunei ur edangarria eta osasungarria edateko eskubidea ukatzen zaienean, munduko pobreenek ordaintzen dute krisi horren preziorik latzena. Ura ez izateak pobrezia-zikloak eragiten ditu, eta, ziklo horien ondorioz, desberdintasunak areagotu egiten dira emakumeen eta gizonen artean, nesken eta mutilen artean, eta haurren gaitz, gaixotasun eta heriotza gehiago sortzen dira. Bi milioitik gora pertsona salbatu ahal izango lirakeke ura benetako lehentasun politikotzat hartuz gero. Baina ez da hartzen: urari buruzko estrategiek ez dute hauteskundeetan garaipenik ematen; eta komunak ez dira inoiz gai nagusi izaten hauteskunde demokratikoetan. Nazioarteko komunitateak, beraz, ez du lortu ura lehentasun bihurtzea. Eta pobreek ez dute ahots edo indar politikorik urari buruzko aldarrikapenak giza eskubidetzat hartuak izan daitezzen.

Liburuxka hau, ordea, ez da amore ematearen aldekoa, inondik ere. Gure ikerketek erakusten dute munduak baduela aski finantziario, teknologia eta ahalmen uraren krisia atzean uzteko, herrialde aberatsek orain dela mende bat egin zuten bezala. Ekintza-planak falta dira, ondo landu eta egoki finantzatutako ekintza-planak.

Berriro diogu: ez dugu erabateko eskasirik ikusten, munduko ur-hornidurak ez dira agortzen. Egia da, ordea, ura gero eta gehiago falta den inguruetan bizi direla kalte gehien izan dezaketen milioika pertsona. Askoz gehiago egin behar da klima-aldaketak dakartzan mehatxuei aurre egiteko. Ura lortzeko lehia handiago

izango da hurrengo hamarkadetan: herriak hazi ahala, industria garatu eta nekazaritza-beharrak areagotu ahala, eskaria gero eta handiagoa izango da. Gutxi gorabehera 1.400 milioi lagun bizi da nahikoa ur-emari ez duten ibai-arroetan: uraren erabilpena handiagoa da erreka horiek berriro betetzeko duten ahalmena baino. Ibaiak lehortzen ari dira, lur azpiko akuiferoak mailaz jaisten, eta uretan oinarritutako ekosistemak oso azkar hondatzen. Mundua bere baliabide preziatuenetako bat agortzen ari da, eta, aldi berean, zor ekologikoa bizkarreratzen. Zuek, gazteok, heredatuko duzue zor hori, eta arazoa gero eta gaitzagoa izango da.

Beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ezean, bi gauza gertatuko dira. Lehenik eta behin, egoerarik okerrean daudenek ur edangarria izateko duten eskubidea urratuko dute talde boteretsuenek. Bigarrenik, mugaz gaindiko gatazkak areagotu eta gerra ireki bihurtuko dira, politika publikoek eta nazioarteko lankidetzak kontrolatu ezean. Horretarako landu zen, hain zuzen, 2006ko Giza Garapenari buruzko Txostena: hain funtsezko gaiei buruzko politika publikoak formulatzeko arduradutenean artean eztabaida eragiteko. Badut itxaropena gazteentzat eginiko Txostenaren bertsio honek eztabaida bizigarria eta sortzailea piztuko duela hurrengo belaunaldiko kideen artean; izan ere, uraren arloan gaur egungo politikaren inertiak jarraitzen badu, gaur egungo buruzagiek aurre egin beharreko krisia txiki gertatuko da belaunaldi horrek borrokatu beharrekoaren aldean.



Kemal Derviş  
UNDPn administraria



# Gazteen hitzaurrea

## Gaur lan egin, biharkoa salbatzeko

"...plastikozko poltsa batean sartzen dute eta kalera botatzen dute? Harrigarria da!". Aho batez mintzatu dira mahaiaren bueltako sei gazteak, ezin sinetsirik.

"Ez! Bene-benetan diotsuet, egia da!". Ahots batek urratu du nahasmena. "Zer egingo du, bada, jendeak? Ez dago hodie-riarik, ez dago komunik. Nora joan behar dute?". Patriciak eserlekuan hartu du patxada, gazteak horri buruz hausnartzen utzita, eta gelakoen aurpegiak aztertu ditu. "Egia esan, ez gara jabetzen zer-nolako zortea dugun".

Giza Garapenari buruzko 2006ko Txostena 32 orrialdetan eta gazteentzat laburtzeko, ideia-zaparrada handia behar da, eta ikerketa asko; gainera, idazkerak egokia izan behar du, eta pasadizoak kontatu behar dira. Argitaratzaileen bilerako bigarren gaua da, eta mundu osoko idazle, artista eta editore gazteak eztabaidan ari dira uraren krisiaz eta saneamenduz. Kiberako (Kenya) "komun hegalarien" gorabeherak eztabaida sutsua piztu dute editoreen artean: putzuak zulatzeak, komunak eraikitzeak eta tantaka-tantaka ureztatzeko sistemak ekar ditzaketen onurei buruz ari dira eztabaidatzen.


Giza Garapenari buruzko Txostena (GGT) Nazio Batuen argitalpen ezagunenetakoa eta irakurrienetakoa da. 2006ko Txostenak giza familiak aurrean duen arazo zail eta baztertuenetako bat aztertzen du: edateko ura eta oinarritzko saneamendu egokia eskura izatea ala ez izatea. Munduko leku guztietan edateko ura eta oinarritzko saneamendu-zerbitzuak bermatuz gero, 1,8 milioi ume salbatuko lirateke urtero, eta munduan saneamendu-zerbitzurik gabe bizi diren 2.600 milioi pertsonak duintasunez bizitzeko modua izango lukete.

GGTa agiri liluragarria da: mundu osoan zehar uraren eta oinarritzko saneamenduaren krisia bizi dutenek idatzitako lekukotza

zuzenak, gertaerak eta datuak erruz azaltzen dira idatzian. Guztira 400 orrialde ditu, eta gai politiko konplexu eta bihurriak aztertzen dira orrialde horietan; beraz, nekez emango litzaieke gaur egun gazteei, irakurtzeko. Hori dela-eta, UNDPk Txostenaren laburpena egiteko eskatu zien Peace Child International erakundearen munduko sareko gazteei, eta bereziki beren belaunaldikoentzat egokituta eta irudiz osaturik egiteko.

Eztabaidaren ondotik, 500etik gora proposamenekin bete da mahaiak. Minutu gutxian, idatzi, poema, marrazki eta argazki pila barreiatu dira mahai gainean. Orrialde bat gainbegiratu, gero beste bat, eta beste bat... Eromen horretan, gogo biziko halako zurrumurru bat piztu da gelan, editore gazteek munduko hainbat tokitan beste gazte batzuek uraren eskasiari buruz zer pentsatzen duten irakurri eta horri buruzko iritziak partekatu dituztenean. Irakurtzen ari zareten liburuxka hau da emaitza.

Andrea Connor  
Anika Patricia  
Daniel Ben  
Blaine



# Milurtekoko Garapen Helburua

## 2015eko muga

2000. urtean, Nazio Batuen Milurtekoko Gailurrean, estaturuek eta gobernuburuek zenbait helburu ezarri zituzten, pobrezia gorria desagerrarazteko eta giza askatasuna areagotzeko. Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH) oinarriak hauek dira: gobernagarritasun demokratikoa, zuzenbideko Estatua, giza eskubideen eta bakearen nahiz segurtasunaren errespetua. Helburuak 2015erako lortu behar dira. Herrialde pobreek ondo gobernatu behar dute, eta beren herritarrei lagundu, osasunean eta hezkuntzan inbertituz. Herrialde aberatsek, berriz, kanpo-laguntzak ematea, herrialde pobreen zorra arintzea eta merkataritza-jardunbide ekitatiboagoak martxan jartzea onartu behar dute.

**Zortzi  
erronka,  
mundua  
aldatzeko**



**1**  
Pobrezia gorria eta  
gosea errotik  
desagerraraztea



**2**  
Lehen Hezkuntza  
unibertsala erdiestea



**3**  
Generoen arteko berdintza  
eta emakumearen  
autonomia sustatzea



**4**  
Haurren heriotza-tasa  
murriztea




**5**  
Amen osasuna  
hobetzea



**6**  
GIB/HIESari, malariari  
eta beste gaixotasun  
batzuei aurre egitea



**7**  
Ingurumenaren  
iraunkortasuna bermatzea



**8**  
Garapenerako  
munduko itun bat  
sustatzea

**Kontua ez da Milurtekoko Garapen Helburuak bete ditzakegun ala ez...**



MGHen oinarria oso ideia sinplea da: pobrezia gorria eta aukeretan dauden alde izugarriak ez dira munduaren nahi-taezko ezaugarriak, konpon daitezkeen arazoak dira. Arrakasta lortzen badugu, urrats handia emango dugu giza garapenerantz. MGHak lortzen ez baditugu, ordea, gure segurtasun eta oparotasun kolektiboa txikitu egingo da. Ur garbia eta saneamendu egokia eskuratzek, bi alderdiko arazoa izateaz gain, ondorioak eragiten ditu beste hainbat arazotan. Helburu guztiak lortu ahal izateko, aurrerapenak behar dira etengabe bi alderdi horietan.

## 7 Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea, eta edateko ur osasungarria nahiz **oinarrizko saneamendu-zerbitzuak** eskura ez dituzten pertsonen ehunekoa erdira murriztea, 2015erako.

2015erako, gutxienez **900 milioi lagun** izango dira ura eskuragarri izateko beharrean; oinarrizko saneamendua 1.300 milioik beharko dute.

Beherakoaren eragina murrizte hutsarekin, **272 milioi eskola-egun gutxiago** galduko lirateke; batez ere, Saharaz hegoaldeko Afrikan eta Hego Asian.

Beherakoaren eragina murriztuz gero, 15 urtetik 59 urtera bitarteko pertsonen multzoak **3.200 milioi lanegun gutxiago** galduko lituzke.

Uraren eta oinarrizko saneamenduaren helburua lortuz gero, **urtean 1.700 milioi dolar aurreztuko lirateke** uraren bidez transmitituriko gaixotasun infekziosoen tratamenduetan.

Munduko biztanle guztiak 2015erako ura eta saneamendu-zerbitzuak eskura izango balituzte, **2 milioi pertsona gutxiago hilko lirateke** hurrengo hamarkadan.



Daniel Lopez



Nina Best



Olivier Cournoyer Boutin



Shahrez Khan



Julien Paquin

**...baizik eta inbertsioa egin gabe gera al gaitzkeen.**

# Giza garapena

## Gure ahalmena lortzeko askatasuna

Pertsonek zer egin dezaketen eta pertsonak zer bihur daitezkeen: horrekin loturik dago giza garapena, baita bizitzan zehar hainbat aukeraren artean egiaz aukeratzeko askatasunarekin ere. Giza garapenerako, funtsezkoa da ur-hornidura segurtatuta izatea; hau da, bermatu behar da pertsona orok lortzen duela, ordaintzeko moduko prezioan, nahikoa ur fidagarri eta osasungarri, pertsona horrek bizitza osasuntsua, duina eta produktiboa izateko.

### Mundu hobea helburu

Giza garapena eta giza segurtasuna hazkunde ekonomikoa baino askoz gehiago dira. Giza garapenak mundua hobetzeko zimentuak ezartzen ditu: munduan pobrezia ez dadin, eta guzti-guztiak hezkuntza eta osasuna izan dezaten.

*Mundu guztiak eskuragarri izango balitu, besterik ez bada ere, ur- eta saneamendu-instalazio oinarritzkoenak, garapen-bidean dauden herrialdeetako osasun-sistemek 1.600 milioi dolar aurreztuko lituzkete urtean.*

Ur garbia eta saneamendua giza garapenarekin estu-estu loturik daude. Munduan haurren heriotza-tasaren bigarren arrazoi nagusia bi faktoreen konbinazioa da: ur zikinak egotea, eta saneamendu-zerbitzuak falta izatea. Baldintza horiek 4.900 ume hiltzen dituzte egunero. Mundu guztiak, besterik ez bada

ere, ur- eta saneamendu-instalazio oinarritzkoenak eskuragarri izango balitu, garapen-bidean dauden herrialdeetako osasun-sistemek 1.600 milioi dolar aurreztuko lituzkete urtean. Umeek urrutira joan behar badute ur bila, edo osasunerako kaltegarria den ura edateagatik gaixotzen badira, ez dira eskolara joaten, eta hori kaltegarria da haien hezkuntzarako. Hezkuntza osaturik ez izateak eta osasun txarrak mugatu egiten diete lanerako gaitasuna, eta pobrezia soka gaizto horretara lotzen dituzte, nekez askatzeko moduan lotu ere.

Zorionez, badago aukera hobekuntza handiak egiteko. Giza Garapenaren Txostenean jasotako ekintza-planaren arabera, urtean 10.000 milioi dolar behar ditugu Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko, eta munduan ur garbiaren eta saneamendu-zerbitzuen eskuragarritasuna nabarmen hobetzeko. Nahiz eta 10.000 milioi dolar diru asko iruditu, munduko gobernuek kopuru hori gastatzen dute ekipamendu militarrean, zortzi egunetik behin! Atera kontuak nolakoak liratekeen emaitzak, gastu militarren portzentaje txiki bat mundu osoari saneamendu-zerbitzuak eta ur garbia emateko erabiliko bagenu.

Zer pentsatua ematen du zenbait herrialdetan egindakoak ere: Mendebaldeko Bengalari eta Indian, esate baterako, aurrerapen handiak egin dira saneamenduan, osasunean eta komunitatearen garapenean, oso-oso diru-kopuru txikia erabiliz. Izan ere, mailegu txiki bati esker, komunitateko kideek komunak eraiki zituzten sei herrixkatan baino gehiago. Dirua -30 dolar komun bakoitzeko- urtebeteko mailegua izan zen, interesik gabea. Kopuru horrekin herritarrek komunak egin eta familia-negozio txikiak sortu ahal izan zituzten. Horren aurretik, kanpoan leku irekietan egiten zituzten herritarrek beren beharrak; egoera horretan, beraz, ez zuten ez higienarik, ez segurtasunik ez eta intimitaterik ere.


**Tokian tokiko arazoei tokian tokiko irtenbideak ematea da aldaketarako abiapuntua.**



**“Giza garapena lotuta dago giza duintasunarekin: haurrak ez hiltzearekin, gaixotasunak ez hedatzearekin, tentsio etnikoak ez lehertzearekin, giza espirituak ez zapaltzearekin”.**

Mahbub Ul Haq

Giza Garapenari buruzko Txostenaren sortzailea



# Ura: giza eskubidea

## Bakea lortzeko aurrebaldintza

Giza eskubideek pertsona oro babesten dute gehiegikeria politiko, legal eta sozialen aurka. Gizakien berezko duintasunean oinarritutako eskubideak dauzkagu, jatorri etnikoa, nazionalitatea edo sexua edozein dela ere.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera, *“giza familiako kide guztien berezko duintasunaren eta eskubide berdinen eta besterendu ezinen onarpena, horixe dago munduko askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarrian”*.

### 20 litro egunean... Beharrezko gutxienera

*“Ur osasungarria eskura izatea gizakion funtsezko beharra da, eta, beraz, eskubide funtsezkoa. Ur kutsatuak arriskuan jartzen du pertsona guztien osasun fisikoa eta soziala. Iraingarria da giza duintasunerako”*.

*Kofi Annan,  
Nazio Batuen Idazkari Nagusia.*

2001eko Uraren Munduko Egunean, Nazio Batuen idazkari nagusiak erronka bota zion munduari, uraren krisiari konponbidea eman ziezaion, eta UNDPk honela erantzun zuen: munduko gobernuek beren esku dagoena egin behar dute, egunero 20 litro ur garbi eta fresko izatea eskubide unibertsala izan dadin, 20 litro baitira pertsona batek bizitzeko behar duen gutxienera. Gure garapen eza argi geratu da. Hainbat herrialdetan, pertsona askok eta askok ezin dituzte oraindik 20 litro eskuratu egunean, edo gorozki, pestizida eta bestelako pozoien batzuekin kutsatutako ura edaten dute. Gainera, ur osasungarria ematen duten iturriak dauden lekuetan, ordaintzeko dirua daukatenean eskura baino ez daude iturri horiek. Pitxer bat urez betetzea 0,25 eta 1,25 dolar artean kosta liteke; beraz, bizitzeko egunean 2 dolar baino ez daukaten 660 milioi pertsonak, besterik gabe, ezin dute urrik erosi.

Ura giza eskubidea dela onartzen ez bada, egoera horiek betikotu egingo dira. Oraintxe bertan bihurtu beharra dago ura giza eskubide, eta, hori lortzeko, guztion erabateko konpromisoa behar da. Pertsona guztiei errespetatuko balitz, ura eta saneamendu-zerbitzuak izateko eskubidea, osasuna eta garapena mundu osoan hedatuko litzateke.

### Ukatu egiten didate ur osasungarria izateko eskubidea

Mushineko nire etxean, Lagoseko (Nigeria) auzo pobretan, nekez egoten da ura kaniletan. Nire familiak eta nik, ura eskuratzeko, saltzen dutenei erosi behar izaten diegu. 150 naira inguru (1 dolar) ordaintzen dugu egunean, 80 litroko ontzi bat betetzeko. Auzo pobretan bizi den jendeak ez du hainbesteko zortetik. Eskolan egon beharrean, ume pobreenek orduak ematen dituzte egunero-egunero familiarentzat ur bila joaten eta etortzen. Ikusi izan ditut umeak ihesne bat zuten hoditerietatik edo hustubideetatik ura eramaten.

Herrialdeko gobernuak itxura besterik ez du egiten egoera negargarri horri aurre egiteko; zundaketa-putzuak eraikitzen dituzte (lurrean zulo sakon eta estuak egiten dituzte, ura aurkitzeko esperantzaz), baina bizpahiru asteren buruan jada ez dute balio. Ni ospitalean eduki ninduten bi aldiz, putzu horietako batetik ura edan nuelako. Ura behar dut bizitzeko, baina ur kutsatua besterik ez dut lortzen. Ur garbia izateko eskubidea daukat, eta ukatu egiten didate. Zergatik?

Geuk, gazteok, kontzientzia sortu behar dugu ur osasungarriaren eta saneamendu-zerbitzuen garrantziaz. Mentalitatea, gure izateko modua eta gure ohiturak aldatu behar ditugu, eta zurrak izan. Elkarrekin egin behar dugu lan, ura giza eskubidea dela onar dadin, eta ur garbia eta osasungarria izateko finantziarioa handitu dezaten; ur garbia, ez bakarrik guretzat, baita hurrengo belaunaldientzat ere.

*Francis Anyaegbu, Nigeria*

**Giza eskubideak ez dira aukera osagarriak.**



Samadhee Malalasekera

### Zilarrezko latak

Goizero,  
lehen aharrausian,  
ahoa fluorurozko galletetz  
garbitzeko gogoak  
atsekabea eragiten dio.  
Tentu handiz, plastikozko  
balde pitzatutik ura isurtzen du,  
zilarrez beteriko  
lata batetik ari balitz bezala.

Edo bazter batean gelditzen da,  
isilik, ur ugaririk gabe egin  
ezin diren zereginenez inguratuta.  
Espiritua egarbera, itxaropenak  
agortuta.

Salda egiteko uraren bila  
etsita dabilen ama da.  
Ura oso garestia denez,  
platerak garbitu gabe utzi behar,  
bai eta larruazala ere.

Eta zuk, hori jakinda,  
lasai igeri egiten jarraituko al duzu  
zilarrezko zure munduan?

*Charles Sendegeya, Uganda*



**Pertsona orok egunean  
20 litro ur gabi eskuratu  
ahal izango dituela  
bermatu behar dute  
gobernuek.**

**Ura eta saneamendua  
oinarrizko giza esku-  
bideak direla aitortu  
behar dugu.**


**Ura eta saneamendua,  
gizakiak bizitzeko  
ezinbestekoak izateaz gain,  
oinarrizkoak dira  
garapenerako ere.**

**Giza eskubideak: balio unibertsalak adierazten dituzten konpromisoak, bete beharrekoak.**

# Krisi isila

## Larrialdi isila: Milioika pertsona ari dira hiltzen

### Urak transmitituriko gaixotasunak: hiltzaile isilak



Urtean 5.000 milioi beherako-kasu diagnostikatzen dira, garapen-bidean dauden herrialdeetako haurren, eta 1,8 milioi hiltzen dira gaixotasun horrek jota.

Munduan, jende gehiago hiltzen da **kutsatuta dauden uretako bakterioek eta birusek eragindako beherakoengatik**, tuberkulosiak edo malariak jota baino.

Ura husteko sistemek ondo funtzionatzen ez badute, ur geldien putzuak sortzen dira, eta putzu horiek berehala infektatzen dira, malaria kutsatzen duten intsektuen bidez. **Egunero, 3.600 pertsona hiltzen dira malariaren ondorioz; haietatik, 3.200 haurrak dira.**





Bart Abbott

**Tratatu gabeko hondakin-urak, edateko urarekin nahasiz gero, bide aproposa dira kolera sortzeko.**



Daniel Lopez

Yu Xian





# Krisi

## 2.600 milioi pertsonak ez dute saneamendu-zerbitzurik

958 milioi pertsonak  
Ekialdeko Asian eta Pazifikoan



925 milioi pertsonak  
Hego Asian



437 milioi pertsonak  
Saharaz hegoaldeko Afrikan




80 milioi pertsonak  
Ekialde Erdikoan



120 milioi pertsonak  
Latinoamerika eta Kariben



Kanbodian, landa-eremuetako langileen eguneko soldata ez da nahikoa familiako oinarrizko nutrizio-beharrei aurre egiteko. **Putzu erako komun bat erosteko, 20 laneguneko soldata behar da;** beraz, ezin eskuratu horrelakorik, diru hori familiari janariak eta arropa erosteko eta etxebizitza ordaintzeko behar baita.




2.600 milioi pertsonak, garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleria osoaren ia erdiak, ez dute saneamendu-zerbitzu egokirik eskura. Jende-kopuru hori mundu osoko biztanleen herena da.

Edateko ura izanez gero, haurren heriotza-tasa erdira murriz daiteke.

# isila

## 1.100 milioi pertsonak ez dute ur garbirik




- 406 milioi pertsonak Ekialdeko Asian eta Pazifikoan
- 229 milioi pertsonak Hego Asian
- 314 milioi pertsonak Saharaz hegoaldeko Afrikan
- 38 milioi pertsonak Ekialde Erdikoan
- 49 milioi pertsonak Latinoamerika eta Kariben

660 milioi pertsona eguneko 2 dolar baino gutxiagorekin bizi dira, eta ez dute ur garbiko iturririk eskura.

**385 milioi pertsona inguru pobrezia gorrian bizi dira, eguneko dolar bat baino gutxiagorekin.**

Garapen-bidean dauden herrialdeen multzoan, 5 pertsonatik batek ez du ur garbirik. Munduko biztanleen seirenak ez dauka ur garbia eskuratzerik.



Ur-eskasia duten herrialdeetan, 700 milioi pertsona bizi dira; 2025erako, 3.000 milioi izango dira...


# Desorekari aurre egitea

## Dena dutenentzat, ura eskuratzea oso erraz eta merkea da; ezer ez dutenentzat, ordea, zaila eta garestia.

Pobreek dirutza ordaintzen dute ur-kantitate txikien truke. Ur hori lortzeko, gainera, distantzia handiak egin behar izaten dituzte oinez, orduak eta orduak itxaron behar dute, eta lehian ibili behar dute elkarren artean baliabide preziatu horrengatik. Desberdintasunak gainditzea ez da bakarrik pertsona orori egunean 20 litro ur bermatzea. Horrez gain, 20 litro horiek edangarriak izan behar dute, eta jendeak ordaintzeko moduko prezioan eskuratu behar ditu; eta pobreek, doan.

## Nork ordaintzen du gehien?

Uraren prezioa (US\$ metro kubikoko)



Manilako auzune txiroetan bizi direnek garestiago ordaintzen dute ura, Londresen bizi direnek baino.

### Kanilakoa edo botilakoa...

Bizitza osoan Errusiako hiri handi batean bizi izan nintzenez, ohituta nengoen ur mineral botilatua erostera. Inoiz ez zitzaidan burutik pasatu ere egin kanilako ura edatea, hori egiten zutenak gaixotu egiten zirelako. Goizero, hortzak garbitzeko, ur minerala erabiltzen nuen. Botilak agortzean, iragazki berezi batzuk erabili eta ura irakiten nuen. Horretarako, denbora asko behar nuen. Batzuetan, hortzak garbitu gabe joaten nintzen eskolara.

Orain trukeko ikaslea naiz, Estatu Batuetan; imajina al dezakezue zer-nolako ezustekoa hartu nuen nire gurasordeak kanilako ura edaten ikusi nituenean? Baina haiek ur minerala erosten jarraitzen dute, ez dakit zergatik.

*Olya Chebykina, Errusia*

**Ura eskuratzeko desberdintasuna: *apartheid*-sistema, ongizatean eta kokapenean oinarritua.**



Karmel Wong

## Hoditeria izoztuen kontzientzia

Gaur negua iritsi da Kanadara, eta gure ukuiluko hoditeriak izoztu egin dira. Goizeko seietan, Eric anaia eta biok 20 litroko baldeak garraiatzen hasi gara etxetik ukuilura, urez beteak, animaliek edateko zer edo zer izan dezaten. Arropa forratuak eramangatik, hotzak nengo: iparraldeko ohiko egun horietako bat izan da gaurkoa.

Baldeak betetzeko zain nengoela, nire artean pentsatu dut oso barre-garria zela jendeak duela denbora asko egiteari utzitako zerbait egin aritzea. Baina zuzendu egin behar izan dut neure burua: munduan pertsona askok eraman behar dute oraindik ere egunero ura batetik bestera. Neuk ere baldeak bete ur eraman ditut ukuilura, nekez. Lehen bidaia pizgarria izan da; ni kanpoan nengoen, ariketa egiten, eginkizun batekin: animaliei ura ematea. Barruan, behi egarritu bat eta llama bat adeitsu agertu dira: ez dute txintik atera ura falta zelako, eta agurtu egin naute; ardiek eta ahuntzek, ordea, garbi jakinarazi didate egoeraren errua nirea zela erabat. Etxera bueltan, besoetan mina nuela konturatu naiz. Itxura guztien arabera, luze joko zuen goizak.

Etxean, nire pentsakizunei bueltaka hasi naiz berriro. Zenbateko antza ote dut egunero ura garraiatzen duten munduko pertsona horiekin guztiekin? Berriro pentsamenduak lasterka: ez, behiak nire maskotak dira. Nire bizitza ez dago behien biziraupenaren baitan. Eta nire behien biziraupena oso gutxitan dago nik haiei ura eramatearen baitan. Normalean, kanila zabaldu, ez dut beste ezer egin behar. Baldeak bete dira, eta nire pentsamenduak gelditu. Korrika batean behien azpilera jo dut, eta erabat hustu ditut baldeak. Esan diet behiei zer-nolako zorrea duten, eta etxera itzuli naiz, berriro ere baldea betetzera.

Ohituta nago baserriko lan gogorrera, baina 40 litro ur gainean eramanda elurretan ibili naizenez, egunero erabiltzen ez ditudan giharrak nekatu ditut. Elkarrekin oinez gindoazela, Ericek esan dit egunero egin beharko genukeela hori, giharrak indartzeko. Egunero, munduan hainbat eta hainbat pertsonak egiten duten bezalaxe.

*Normalean, kanila ireki, ez dut beste ezer egin behar.*

Pentsatzen jarri naiz zer ote den hori, lan hori guztia egunero egin beharra, ur zurrutada bakoitzeko. Behien ondotik igarotzean, ohar-tu naiz uraren azpila pixka bat zikin zegoela eta berehala garbitu beharra zegoela. Kanilatik ateratzen dudana ura garbia eta argia da, eta berehala edan daiteke. Baina, zer gertatuko litzateke erreka lokaztu batetik edo putzu geldu batetik etorriko balitz? Zer gertatuko litzateke, eskuratu ahal izateko ur bakarra zikin egongo balitz? Zaldiei begiratu diet, behiei –nire maskotei–, eta ikusi ditut ur garbiaz egarria asetzen. Milioika pertsonak edaten dutena baino ur garbiagoa. Zergatik daukat nik ongizate eta luxu hori izateko eskubidea? Zergatik ase naiteke ni urez, eta beste batzuk egarriak daude? Zergatik ibili behar du hainbeste jende kezkatuta, ura hurrengo aldiz nondik edango duten ezin jakinik? Zer egin dezaket?

*Connor Youngerman, Kanada*

**385 milioi pertsona egunean 1 dolar baino gutxiagorekin bizi da, ur garbirik eskura izan gabe.**

# Genero kontua

## Zama emakume eta neskatilen gainean

Mundu osoan, emakumeek eta neskatilek neurritz gain jasaten dituzte uraren eta oinarrizko saneamenduaren krisiaren ondorioak. Herrialde askotan, kulturak ezartzen du emakumeek eta neskatilek hartu behar dutela beren gain etxearen ardura; beraz, beraien eginbeharra da familia osoarentzat ura bilatzea eta ekartzea. Neskatilek, etxetik gertu ur garbiko eta oinarrizko saneamenduko instalaziorik ez badute, eskolara joateko aukerak galtzen dituzte, eta, horren ondorioz, baita beste zenbait aukera ere: beren komunitateetan erabat parte hartzeko aukerak, eta ahalmenak ikasi eta merkaturatzekoak.

### Denbora galdua, etorkizun galdua

Oso arazo sinplea da: emakumeek eta neskatilek, ura biltzera eta garraiatzera joan behar badute, edo komunera joateko lekuren baten bila oinez distantzia luzeak egin behar badituzte, ez dute astirik beste zeregin batzuetan aritzeko; hala nola, eskolara joateko, seme-alabekin jolasteko eta lan egiteko.

Loturak argiak dira: "Nola ez dut, bada, eskolan egon nahiko?", azaldu du Yenik, 10 urteko neskatila batek, El Alton, Bolivian. "Baina, nola egin dezaket? Gure amarentzat beharrezkoa da nik ura jasotzea, eta kanila 10:00etatik 12:00etara dago irekita. Oso goiz jarri behar da ilaran, jende asko etortzen baita ura hartzera".

Tanzanian, neskatilak iturburutik 15 minutu baino gutxiagora bizi direnetan, ehunetik 12 aldiz gehiago joaten dira eskolara. Iturburu batetik zenbat eta gertuago bizi, orduan eta aukera gehiago dute neskatilek eskolara joateko.

Ur bila joan behar izatea ez da oztopo bakarra emakumeek hezkuntza jasotzeko; eskolara joateko zortea dutenek ere etxera itzuli behar izaten dute sarri, eskolan komunik ez

dagoelako edo egoera txarrean daudelako. Guraso askok, eskolako komunetako higiene, segurtasun eta pribatutasun faltarekin kezkatuta, eskolatik atera egiten dituzte alabak, behin nerabegarora iristen direnean. Bangladeshen, UNICEFen programa baten bidez eskolako komunen instalazioak hobetu ondoren, %11 igo zen eskolara joaten ziren neskatilen kopurua.

Emakumeek eta neskatilek edateko ura eta oinarrizko saneamendua eskura dutenean, onurak iraunkorrak dira. Hezkuntza jaso duten emakumeek ahalmen handiagoa dute etxean, komunitatean eta herrialdean erabakietan parte hartzeko. Hezkuntza jasotzen duten neskek joera dute geroago ezkontzeko eta umeak ere geroago izateko; haien familiak txikiagoak eta osasuntsuagoak dira, hezkuntzarik jaso ezin izan duten emakumeen familiak baino. Milurtekoko hirugarren helburua, genero-berdintasuna sustatzea eta emakumei bultzada emateari buruzkoa, asko aurreratuko da, garpentzian den munduan uraren eta oinarrizko saneamenduaren hornidura lehentasun bihurtzea lortzen badugu.

*Guraso askok, eskolako komunetako higiene, segurtasun eta pribatutasun faltarekin kezkatuta, eskolatik atera egiten dituzte alabak behin nerabegarora iristen direnean.*

**Egunean 40.000 milioi ordu galtzen da Saharaz hegoaldeko Afrikan ura hartzen; hau da, Frantziako lan-indar guztiaren urtebeteko lanaldia adina**





Antonio Suarez


**Zenbait azterketak adierazitakoaren arabera, ura garraiatzen egunero ordubete ematen duten emakumeek urtean 100 dolar gehiago irabazi ahal izango lukete, ura garraiatu beharrik ez balute**

# Ekitearen onurak

## 300 urteko bidaia denboran: Mumbai, 2007 = Londres, 1707

Badago itxaropena! Historia lekuko. Hiri handietan –esaterako, New Yorken eta Londresen–, oinarrizko saneamendurako sistema integralak jartzearen ondorioz, bertako biztanleen osasun-maila hobetu egin zen, eta urak transmitituriko gaixotasunak desagertu egin ziren; esaterako, kolera. Gaixotasun horiek gabe, jendeak bizitza luzeagoa eta produktiboagoa izan zuen, eta denbora igaro ahala, giza garapenak aurrera egin ahal izan zuen. Gure erronka da aurrerapen horiek berak gertatzea, ur-hornidurarik eta oinarrizko saneamendurik gabeko lekuetan.

## Oso gutxirekin, asko lagun daiteke



UNDPren ikerketak frogatzen du ur-hornidura eta oinarrizko saneamendua hobetuz gero haur-heriotzak izugarri murrizten direla.

Ur-horniduran eta oinarrizko saneamenduan inbertitzea bultzada handia izango litza-teke Milurtekoko 4. helburua lortzeko; hau da, **hauren heriotza-tasa murrizteko.**

Orangi-n (Pakistan), hondakin-urak biltzeko kamioi bat erabiltzen hasi zirenean, hauren heriotza-tasa murriztu egin zen: 1980ko hamarkadan, bizirik jaiotako 1.000 haurretik 130 hiltzen ziren bost urte bete baino lehenago; gaur egun, berriz, 40 baino gutxiago hiltzen dira.

Ur-hornidura, oinarrizko saneamendua eta osasun publikoa lehentasunak direla bermatu behar dute herrialdeetako, eskualdeetako eta tokiko gobernuek, eta aitzandari izan behar dute alor horretan.





Bart Abbott



Bart Abbott

## Urak biziberritu egiten du bizitza

Moturumesi herrixkan eta Nyamiratik hurbileko inguruetan (Kenya), ur-arazoak zituzten, baina 2004an gobernuaren eta beste erakunde emaile batzuen laguntza jaso zuten herritarrek. Gaur egun, uraren udal-sistema berriak 15.000 pertsona eta 30.000 animalia baino gehiagori ematen die zerbitzua. Aurpegi zoriontsuak ageri dira nonahi. "Gure animaliak sano daude, eta nik eskolara garaiz joateko aukera daukat", dio Susan Kwambokak, uraren proiektuaren aurretik kolerak maiz jotako neskatila batek.

Amona Moturumesin bizi da eta orain bisita egin diezaioket; hori da niretzat saririk onena. Hobekuntzek errazagoa egin dute dena. Bisitan joaten naizenean, jada ez daukat bide luzean ura garraiatzeko edo animaliak urruneko erreketara eramateko beldur hori. Amonak ez dauka jada seme-alabak edo bilobak ospitalera eraman beharrik. Maiz ureztatzen ditu soroak, eta uzta bikainak ziurtatzen ditu hala. Ura eskura izateak aurpegia argitu dio. Gozatu egiten du egunero dutxa hartzen, ez baitzuen urtetan halakorik egin. Berarentzat, hasi baino ez da egin bizitza.

*Joshua Awala, Kenya*

**Ghanako ur eta oinarrizko saneamenduaren komunitate-erakundeak egindako ahaleginari esker, urtean beste 200.000 pertsonak dute ur edangarria lortzeko modua!**

# Ezer ez egitearen ondorioak

## Pertsonak hiltzen dira axolagabekeriaren ondorioz

Uraren krisia gizateria osoarentzat da mehatxu. Kolerak jota hiltzen dira umeak; pertsonak ur kutsatua edaten dute, eta emakumeek kilometroak egin behar izaten dituzte egunero oinez, ur zikineko iturburu batera iristeko. Ekintza faltak akabatuko gaitu. Gure geldotasunak milaka milioi pertsona kondenatuko ditu gero eta pobrezia, gaixotasun eta heriotza gehiago izatera. Ura ez da salgaia, bizirako beharrezkoa baizik.

### Oinetatik gaixo

Urte askoan, errepide pareko etxebizitza-blokeetako jabeekideek Ezra Gumbeko eskolako patioa bota dituzte hondakin-urak eta zaborrak. Ekialdeko Afrikako lehen hezkuntzako eskola bat da Ezra Gumbeko. Zuzendariak, Francisca Howallak, patioa zatirik lehorrenean geratu eta hatzaz erakusten ditu gaixotasunez betetako ur-eterriak, eskuz egindako zanga txikietatik zirkulatzen. "Putzu hori patioaren erdi-erdian egin zen; umeak gaixotu egiten dira horren erruz", azaldu du. "Beherakoak edo malariak jotako 30 ume inguru artatzen ditugu astean".

Mundu osoan umeak hiltzen ari dira, oinarritzko saneamendu egokirik ez dutelako. John Mark, Marcos eta Babu Ezra Gumbeko eskolako ikasleak dira. Hamar bat urte dituzte, eta, ume guztiei bezala, izugarri gustatzen zaie jolas egitea. "Gure eskolako ur guztia ez da garbia", dio John Markek. "Patioan korrika ibiltzen garenean, batzuetan gure oinetako behatzak gaixorik daude". Bai John Markek eta bai Marcosek makurtu eta oinak erakutsi dituzte. Ziur asko, eskistomiasisa da aipatzen duten gaixotasuna. Pixaz nahiz kakaz kutsatutako uretan ugari izaten den har parasito batek sortzen du gaitz hori. Har parasito horiek oinetatik sartzen dira, eta erupzioa eta mina sortzen dute; John Markek, Marcosek eta Babuk

diote sentitu izan dutela min hori. Medikuek garaiz tratatu ezean, gaixotasun horrek gibela, hesteak, maskuria eta birrikak kaltetu ditzake, eta, inoiz, baita heriotza eragin ere.

Umeen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak bereziki dio umeek "aisialdiko jolas eta jardueretan parte hartzeko eskubide besterenezina" dutela. Ezra Gumbeko umei, osasuna ez ezik, ume izateko eskubidea ere kentzen diete. Ezin dute jolas egin, ezin dira korrika aritu, gozatu edo zoriontsu izan, gaixotasun hilgarriren bat hartzeko arriskurik gabe. Heldu bat izan al liteke zoriontsu halako baldintzetan? Kamerei begira barre txiki bat edo keinu bat egiteko eskatu zitzaizenean, John Mark, Marcos eta Babu pozarren zeuden. Horixe da umeen espirituaren edertasuna. Bakea eta zoriontasuna lortzeko indar garbi eta ahaltsuenetakoa da, eta horregatik babestu eta zaindu behar da.

*Bart Abbott, Ameriketako Estatu Batuak*

**Beherakoaren ondorioz ume bat hiltzen da hiru minututik behin.**

**Garapen-bidean diren munduko alderik gehienetan, ur kutsatua mehatxu handiagoa da pertsonen bizitzarako, indarkeriazko gatazkak baino.**

**Une honetan, garapen-bidean den munduko biztanleriaren ia erdiak gaixotasunak pairatzen ari dira, ur zikinaren edo oinarritzko saneamendu desagokiaren ondorioz.**







# Mugaz gaindikoa urak

## Nazioarteko lankidetzak funtsezkoa da guztion ongizaterako

Hainbat herrialde iturburu baten mende daudenean, lankidetzak, zentzua ez ezik, berebiziko garrantzia du gizakiaren biziraupenerako. Nahiz eta ura eskuratu nahia banaketa-eragile izan daitekeen, izan liteke elkartzeko arrazoia ere. Zoritxarrez, mugaldea ur-erreserba bera partekatzen duten herrialdeek ez dute sarri lankidetzan jarduten, eta baliabide hori eskuratzeko borroka egiten dute azkenean. Gobernuak goitik behera aldatu behar dute ikusmoldea, eta partekatzen ikasi.

### Gehiegikeriak mugatu

Peru eta Bolivia arteko goi-ordokian dago Titicaca aintzira. Hiltzen ari da, ordea, aintzira hori. Haren mende gaude, baina neurritz gain erabili dugu, meatzeetako eta nekazaritzako hondakinak baimendu baititugu ekosisteman. Milioi bat pertsona inguru bizi da aintziraren inguruetan, baina ez dira jabetzen zenbateko kaltea eragin duten. Urik ez hartzeko eta arrainik sekula ez gehiago jateko ohartarazi gaituzte, baina arraina da nire jakirik gogokoena!

Azkeneko hamabost urteotan, Boliviako eta Peruko gobernuak erakundeak ezarri dituzte, gehiegikeria mugatzeko. Talde horiek elkarrekin egiten dute lan, nekazaritzak sortzen dituen kalteei buruz hezteko han bizi diren pertsonak. Badira zenbait plan hondakinak biltzeko instalazioak hobetzeko, baina oso erronka handiak ditugu aurrean. Gaur egun, pertsona askok eusten diete nekazaritzako betiko moldeei. Abeletxe bateko hondakinek ez dute kalte handirik eragiten, baina milaka abeletxetako hondakinek bai, eragiten dute. Aintziraren hondartzan, etxetik gertu, oinez noan eran, gaixotu egiten naiz kutsadura hori guztia ikuste hutsarekin.

Aintzira garbitu aurretik, gure bizitzak behar ditugu garbitu. Hondakinen eta osasun-zerbitzuen kudeaketa hobetu behar dugu, nekazaritza-teknika iraunkorrak behar ditugu. Titicaca aintzira baliabide ikaragarria da, baina, zaintzen ez badugu, suntsitu egin dezakegu. Nolanahi ere, Peruko eta Boliviako gobernuen arteko lankidetzari esker, badugu itxaropena ez dela berandu izango. Oraindik ere salba dezakegu aintzira. Badut esperantza egunen batean berriro ere arraina jateko!

*Gaby Mavila, Peru*

### Lankidetzak, arnas berritzeko


Danubio ibaiaren arroak Europako 19 herrialde hartzen ditu; horien artean Alemania, nire etxea. Denbora luzean, ibaiaren kudeaketa zaila izan zen, herrialde askok erabiltzen dutelako aldi berean, baina 1998an batzorde bat sortu zen, ibaiertzeko herrialde guztietako ordezkariak osatua, elkarrekin lan egiteko eta ibaia nahiz inguruak babesteko.

Helburu nagusia ibaia arnas berritzea zen –hala da oraindik–, garai bateko ospe hori itzultzea, eta, hala, Europarako ur garbi eta osasungarria izateko sistema bideratzea. 2001etik, milaka milioi dolar inbertitu da ibaia, estuarioak eta inguruko eremuak garbitzeko; nire etxetik gertuko estuario baten garbiketa nik neuk antolatu nuen. Lan horren emaitzak positiboak dira, harrigarriak, eta jada begien bistakoak ere bai: ibaian bizi diren espezieen kopurua bikoiztu egin da ia 1980ko hamarkadatik; ura garbiago dago, eta ibaiaren inguruko herriak zoriontsuagoak eta osasuntsuagoak dira. Amak esaten zigun udan ez genukeela joan behar ibaira bainua hartzera, baina orain, bai, orain joan gaitzake!

Lanak inbertsio ekonomiko eta politiko nabarmena eskatu badu ere, hobekuntza horien onurak guztiengana iristen dira. Elkarrekin lan eginez, erakutsi zuten herrialdeek bat egin dezaketela eta guztien arazo bat konpon dezaketela. Ura partekatu beharreko sistemak direla-eta gatazkak dauden beste herrialde batzuetan ere gauza bera gerta litekeela erakusten du horrek. Danubiotik, ur adina esperantza ateratzen dugu.

*Matthias Schmidt, Alemania*

**9 herrialdek partekatzen dute Amazonas ibaia; 11 herrialdek partekatzen dute Nilo.**



### Muga naturalak

Ura lortzeko borroka egitea gerra odoltsua da  
 Baina urak ez dauka  
 Odolaren aurreiritzi lodirik.  
 Leku guztietan dago ura; guztiongan dago.  
 Errekek, ibilian,  
 batu egiten dituzte lurraren ingurumariak,  
 ez dute biderik egiten  
 guk sortutako ingurumari bananduetan,  
 ez eta gure grina itsuetan ere.  
 Ahazteko joera dugu  
 Erreka gu baino lehenago zegoela hemen,  
 Eta gure lerroak  
 Irudimenezkoak baino ez direla.

*Andrea Davidson, Kanada*

Samson Gounue

## Presen gatazka

Indian, ni bizi naizen lekuan, ohikoak dira partekatutako ura eskuratzeko borrokak. Gobernuari eta lege-sistemari esker, gatazka horiek modu baketsuan konpontzen dira sarri, baina, epaiketak zailak direnez, eta maiz urteak behar izaten direnez erabakia iristeko, krisiak sortzen dira, nahitaez.

1991n, lehorte suntsitzailea pairatu genuen Tamil Nadun, ni jaio nintzen estatuan, Cauvery ibaia lehortu egin baitzen. Gure estatuko eta ondoko Karnataka estatuko ur guztia hornitzen du ibai horrek. Hasieran, Karnatakatik behera egiten du Cauvery ibaiak, Tamil Nadura iritsi aurretik. Bi estatuen artean bada presa bat; horri esker, Cauvery ibaiaren ur-kopuru zehatz bat dago eskuragarri Naduko nekazariarentzat, eta, aldi berean, kopuru jakin bat gordetzen da Karnatakako nekazariarentzat.

Lehorte hori zela-eta, Tamil Nadura iritsi beharreko ura ez zen sekula iritsi gure abeletxeetara, eta ez geneukan nahikoa ur soroak ureztatzeko. Bost urte baino ez nituen nik, baina oraindik gogoan dut zein haserre zegoen aita. Ez nuen

sekula hala ikusi. Hamasei urtean, gortek eta legeek ez zuten lortu akordio baketsurik eta arrakastaturik, uda iristen den bakoitzean birsortzen den krisia konpontzeko. Hamasei urtean, Tamil Naduko eta Karnatakako jendeak indarkeriara jo du Cauveryko ur preziatuaren aldarria babesteko.

2007ko urtarrilaren 5ean, zorionez, Indiako Auzitegi Gorenak lege bidezko irtenbide bat eman zuen, eta espero dugu krisia horrekin konpontzea. Auzitegiaren erabakiak kuota batzuk ezarri zituen, nazio-esparrutik estatu bakoitzak jaso beharreko ur-kopurua zehazteko, eta udako hilabete gogor eta lehorretan kuota horiek bete daitezten bermatzen du. Gobernuaren plana arrazoizko konpromisoa da, eta, erabaki nazional horri esker, Tamil Naduko nire etxeko nekazariak eta Karnatakakoek nahikoa ur izango dute uda bakoitzean. Indarkeria eta borrokak amaituko direlako itxaropena dugu.

*Preetam Alex, India*




Darpan Mandal

**Herrialde asko hartzen dituzten ur-arroetan bizi dira 5 pertsonatik 2.**

# Klima-aldaketa

## Pixkanaka eta saihestezin ari da gertatzen

Berotegi-gasak gero eta beroagoa ari dira bihurtzen mundua. Giza garapenaren mehatxuak arintzeko estrategiak sortzea, horrek behar du izan munduan gure lehentasun berehalakoa. Klima-aldaketaren ondorioek –hau da, itsas mailaren igoerak, lehorteek eta uholdeek, eta tenperatura gorabehera handiek– eragin nabarmena izango dute mundu osoko milioika pertsonaren osasunean, segurtasunean eta bizibidean.




Temperatura altuagoak



Ozeanoen lurruntze handiagoa



Uraren zikloetako aldaketa bortitzagoek beste euri-joera batzuk sortuko dituzte



Uholde eta lehorteak, eta tenperatura muturrekoagoak

### Mundua berotzen ari da

Ez dio axola zer egingo dugun orain, datozen ehun urteetan mundua modu lazgarrian aldatuko da, dagoeneko gure atmosferan isuri ditugun berotegi-gasen ondorioz (batez ere, karbono dioxidoaren, metanoaren eta ozonoaren ondorioz).

Airearen tenperatura altuagoek ozeanoen lurruntze handiagoa sortuko dute, eta lurreko uraren lurruntzea azkartuko. Euri-joerak aldatu egingo dira eta ingurune lehorrak are lehorragoak bihurtuko dira, eta ingurune hezeak are hezeagoak. Aldaketa horiekin batera, beste euri-joera batzuk etorriko dira. Eta klima aldetik, gertaera muturrekoagoak; hala nola, oraindik orain izan diren urakanak.

1997an, Kyotoko Protokoloa zen pausorik zehatzena klima-aldaketa arintzea lortzeko. Gobernuak konpromisoa hartu zuten karbono dioxidoaren isuriak 1990eko mailetatik %5 murrizteko, 2012a baino lehen. Baina ez Australiak ez Estatu Batuek ez zuten sinatu, eta Protokoloa ez da aplikatzen garapen-bidean diren zenbait herrialdetan; Txinan eta Indian,

esaterako. Egia gordina hori da: Kyotoko Protokoloan adostutakoak munduko isuriaren heren bati baino gutxiagori eragiten dio.

Benetako aurrerapausoak emango badira, orain arte ez bezalako lankidetzara behar da nazioartean. Herrialde aberatsetan ekonomiak “karbonoz gutxiagotu” baino zertxobait gehiago egin beharko dute, baina, aldi berean, garapen-bidean diren herrialdeen “aztarna ekologikoa” gero eta handiagoa da, eta hori ezin da bazterrerara utzi.

*Kyotoko sinatzaileek agindu zuten karbono dioxidoaren isuriak % 5 murriztuko zituztela 1990eko mailetatik, 2012rako.*


**Lehorteak handitu egin dezake malnutrizioak jotako pertsonen kopurua, 75 eta 125 milioi artean**





**Mendebaldeko Afrikan, ibaiek itsasoan isurtzen duten ur-kopurua % 40 baino gehiago murriztu da 1970eko hamarkadatik.**

**1990eko hamarkadan, gutxi gorabehera urtean 201 miloi pertsonak nozitu zituzten klimarekin lotutako hondamendien kalteak.**



**Erregistraturiko 10 urterik beroenak 1994. urteaz geroztik izan dira.**

**XIV. mendean geroztik, 1990ekoa izan zen hamarkadarik beroena.**

**Mundua 0,2° C-tik 0,5° C-ra bitartean berotuko da datozen urteetan.**



Edward Blackie

## **Ura, ura alde guztietatik**

2006ko urtarrilean, Waghi ibaiek gainezka egin zuen Papua Ginea Berriko mendebaldeko lur garaietan. Hainbat hilabeteko lehortearen ondotik, nire familiak otoitz egiten zuen euria egin zezan. Ura behar genuen baratzerako, han lantzen baitugu gure jatekoa, baita kafe-sailerako ere, han egiten dugu-eta lan. Euria iritsi zenean, atertu gabe egin zuen. Ibaiek gainezka egin zuen, eta den-dena eraman zuen haranean. Herrixkako guztiok ihes egin genuen mendietarantz, baina gure etxeak, gure lorategiak, gure animaliak, gure sailak... dena geratu zen ur azpian.

Ura jaitsi zenean pentsatu genuen dena pasatua zela, baina oker geunden. Lokatz, hondar eta hondakinezko geruza lodi batez estalita zegoen guzti-guztia. Animalien gorpuak usteltzen hasita zeuden. Malariak jo eta gaixotzen hasi ginen, putzuak eta urmaelak leku ezin hobeak baitira eltxoentzat. Lau hilabete joan zitzaizkigun garbiketa- eta konponketa-lanetan, etxera itzuli ahal izan aurretik.

Zein mingotsa izan zen, ordea, uholdearen ironia: euria egiteko otoitz egin eta ura etorri bazen ere, egarri akabatzen egon ginen. Uholdearen ondotik ez zegoen ur garbia lortzeko modurik, ez garbitzeko ez edateko, ura ateratzeko erabiltzen genituen iturriak suntsituta geratu baitziren, eta hildako animaliez kutsatuta. Zer eta ur botilatuaren mende geunden! Urtebeteren buruan, egoera ez da bere onera etorri.

*Norman Wai, Papua Ginea Berria*

**Isurpen guztiak gaur bertan geldituta ere, tenperaturak gora egiten jarraituko luke, iraganeko isurpenen ondorioz.**

# Gazteak ekinean

## Gure grinak hauspotzen du gure borondatea

Gogo bizia. Iraunkortasuna. Grina. Konpromisoa. Kemena. Ikuspegia. Jarrera baikorra. Ezaugarri horiek guztiek definitzen dute gazteen espiritu ekintzailea. Gazteek behin eta berriro erakutsi dute maisu-maistra handiak direla, baita pentsalari sortzaileak ere. Beren komunitateetan aldaketa iraultzaileak egin dituzten pertsona gazteen adibideak datoz ondoren; uraren bidez kutsatutako gaixotasunen mehatxu isila amaiazteko ahaleginean eta ur edangarri eta segurua izateko eskubidearen alde borrokan ari diren gazteen adibideak.

### Urrats txikiak

“Nire etxean, kanilako ura berrerabili egiten dut, komunari eragiteko”, dio Txinako Lin Yandek. “Hurrengo hilabetean, ama harrিতта geratu zen uraren kontua %20 jaitsi zela ikustean! Nire inguruko egoeraz jabetzean, kanpaina bat abiatzea erabaki nuen: “Nola aurreztu ura etxean”. Esku-orriak bidali nituen inprimatzera, eta gaur egun taldetxo bat ari da nirekin lanean. Urtero, Uraren Munduko Egunean, ekitaldiak antolatzen ditugu gure komunitatekoek kontzientzia har dezaten. Nahiz eta urrats txikia izan, gutxienez badakigu norabide zuzenean goazela, eta herritarrek –pobreek, bereziki– diru gutxiagorekin nahikoa ur izan dezaten bermatzen ari gara.



Nina Best

### Komun miragarriak errefuxiatuentzat

Sierra Leonan, gerra zibilaren ondotik, gainezka zeuden errefuxiatu-zelaiak. Mandela Zelaian, handienetako batean, zazpi komun besterik ez zeuden 1.000 pertsonarentzat! Komun horiek zikin-zikin zeuden: hondakinak zanga batera zihozten zuzenean, **John Koromaren** atletik gertuko zanga batera. Johnek, bere osasunak eta beste batzuenak zer-nolako arriskuei aurre egin behar zieten kezkatuak, erabaki zuen zerbait egiten hastea! Lagunen, familiaren eta komunitatearen laguntzaz, komunak berritzeko finantziarioa eskatu zuen Johnek, baita jaso ere. Taldeak plan bat landu zuen komunak zaharberitzeko, deposituak eta komun-ontziak jarri zituzten, eta 80 metroko plastikozko hoditeria batera lotu; hoditeria horrek kaleko estolda nagusira eramaten zituen hondakin-urak. 1.045 dolar eskasekin, aldaketa izugarria egin zuen Johnek.



Anika Singh

“Ur zikina ezin da garbitu”. Afrikako atsotitza





Daniel Lopez

## Eskola-egunak eguzki-energiarekin

**Vu Tuy Anh** haserre zegoen, Vietnamen, bere jaioterrian, umeak ezin zirelako eskolara joan urtaro lehorrean; izan ere, egunean 30 kilometro egin behar zituzten oinez ura hartzeko. Vuk eta ingeniari batek sistema bat diseinatu zuten iturburu hurbilenetik –12 kilometrora zegoen– ura ateratzeko. Eguzki-energia bidezko sistemak ponpa bat erabiltzen du ura iturburutik mugitzeko, eta, hoditerietan barrena, herrixkan ura biltzeko depositu batera eramaten du. Bi egunetan, Vuk, lagunak eta 60 herritarrek zanga egin zuten hoditeriarentzat. Astebeteren buruan, depositua beterik zegoen. Proiektuaren ingeniariak, Nguyen Xuan Anek, ponparen zati mugikorrei koipea nola eman erakutsi zien herriko gazteei, eta hura etengabe nola zaindu ere adierazi zien. Umeek, laguntzaile gazte askorekin batera, gogotsu zaintzen zuten sistema, ikusten baitzuten ponpari esker denbora handia aurrezten zutela eta berriro ere eskolara joateko aukera zutela.



Dan Porges/Still Pictures

Nik promes bat eta desira bat egin ditzaket. Promes egiten dut hemendik aurrera urarekin ez dudala axolagabe jokatu; eta nire desira da planeta honetako pertsona guztiek nire jarraibidea hartzea.

Raffia Saleem, Pakistan

**“Ez duzu zure ura faltan botako, zure putzua agortzen ez den arte”. Bob Marley**

# Etorkizunari begira

## Zer egin behar dugun krisiari buelta emateko...

Pertsona orok egunean 20 litro ur garbi eta fresko izatea giza eskubidetzat aitortzea eta eskubide hori defendatua izatea lortu behar dugu.

Bermatu behar dugu familia bakar batek ere ez gastatu behar izatea diru-sarreraren %3 baino gehiago ura eskuratzeko.

Pobreek ura doan eskuratzeko bermatu behar dugu.

Edateko ura eta oinarritzko saneamendua lehentasun nazionala izatea lortu behar dute gobernuek, bai eta garapen-proiektuak finantzatzea lortu ere.

Gobernuek eta komunitate-taldeek elkarrekin egin behar dute lan, tokian tokiko konponbide egokiak diseinatzeko, urarekin eta oinarritzko saneamendurekin lotutako arazoetarako.

Nazioarteko emaileek oinarritzko saneamendurekin eta ur-hornidurarekin lotutako proiektuak finantzatu behar dituzte.



# Gazte-ekintza areagotzea

## Eragin aldaketa!

Gazteok egoera ezin hobean gaude: energia, denbora eta gogo bizia dugu. Orain dugu ekiteko unea. Parte hartu!

Ikasi uraren eta oinarrizko saneamenduaren krisiari buruz. Jakinarazi ikasitakoa.

Hitz egin lagunekin, ikaskideekin eta gurasoekin.

Berrerabili barazkiak garbitzean erabilitako ura, beste zerbait garbitzeko edo landareak ureztatzeko.

Hortzak eskuilatzean, itxi kanila.

Etxeko kanila arrunten ordeztatu, jarri ura aurrezten dutenak.

Bidali gutunak, postalak, posta elektronikoko mezuak eta uso mezulariak gobernuari.

Esan gobernuari aurrerapenak eta inbertsio iraunkorrak nahi dituzuela, urarekin eta oinarrizko saneamenduarekin lotutako proiektuetan.

Jardun boluntario-lanetan urarekin eta oinarrizko saneamenduarekin lotutako gaietan aritzen diren erakundeetan! Erakunde askok diru-laguntzatxoak ematen dituzte, gazteek landuriko garapen-proiektuetarako. Egin proposamen eta aurrekontu bat. 300-500 dolarrekin etekin izugarria lor daiteke garapen-bidean dauden herrialdeetan.

Zure komunitatean putzu bat edo komunak behar badira, bilatu lagunak eta finantziarioa, eta hasi lurra zulatzen!

Ur ugariko eremu batean bizi bazara, antolatu elkarte bat, dirua biltzeko eta uraren beharra duten lekuetan proiektuak finantzatzeko.

**Izan sortzaile.**

**Aukera ugari dago, mugarik gabe...**





Janari gabe, 40 egun iraun dezake bizirik  
gizakiak; **urik gabe, ordea, 5 baino ez**



Darpan Mandal

# Ura giza eskubidea da

– Egunean 20 litro, gutxienez –